

ERRESUMA

**ADMINISTRAZIO-AKORDIOA,
EUROPAKO EKONOMIA ETA GIZARTE KOMITEAREN
ETA ESPAINIAKO ERRESUMAREN ARTEKOA**

Batetik, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak (EEGK), eta, bestetik, Espainiako Erresumak,

Ikusita, Gai Orokorretako eta Kanpo Harremanetako Kontseiluaren 2005eko ekainaren 13ko ondorioak, Kontseiluan eta, hala badagokio, Europar Batasuneko beste instituzio eta organo batzuetan hizkuntza gehigarriak ofizialki erabiltzeari buruzkoak,

Kontuan hartuz:

- (1) Batasuna herritarrengana hurbiltzeko ahaleginen barruan, erraztu behar da, ahal den neurrian, herritarrak eta haien ordezkariak instituzioekin beren ama-hizkuntzan komunikatzea, elementu garrantzitsua baita Batasunaren proiektu politikoarekin duten identifikazioa indartzeko.
- (2) Batasunean badira beste hizkuntza batzuk, Kontseiluaren 1/1958 Erregelamenduan adierazitakoez aparte, estatu kide baten Konstituzioaren arabera estatutua aitortua dutenak lurralde osoan edo zati batean, legez hizkuntza nazional bezala erabil daitezkeenak.

ADOSTU DUTE ADMINISTRAZIO-AKORDIO hau sinatzea, Europako Ekonomia eta Gizarte Komitean (EEGK) ofizialki erabili ahal izateko 1978ko Espainiako Konstituzioaren arabera estatutua aitortua duten gaztelaniaz besteko hizkuntzak.

Lehenengo klausula

Kontseiluaren 2005eko ekainaren 13ko Ondorioen arabera eta Espainiako legerian aurreikusitako baldintzetan, Espainiako herritar orok edo Espainian bizi den edo egoitza duen pertsona fisiko edo juridiko orok eskubidea izango du Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari (EEGK) idatzizko komunikazioak bidaltzeko Espainiako Konstituzioaren arabera Espainiako lurraldean hizkuntza ofizialaren estatutua duen edozein hizkuntzatan.



CESE 580/2006

.../...



1.1. Erabilitako hizkuntza gaztelania ez bada, ahalmen hori honako prozedura honen arabera gauzatuko da:

- Herritarrak Espainiako legeriak izendatutako organo eskudunari bidaliko dio bere idatzizko komunikazioa, azken horrek Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari (EEGK) bidal diezaion gaztelaniazko itzulpen ziurtatuarekin batera.
- Komunikazioaren jasotze-data izango da Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak (EEGK) organo horren itzulpen ziurtatua jasotzen duen eguna, bereziki Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak (EEGK) herritarrari erantzuteko epe bat badu.
- Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak (EEGK) gaztelaniaz idatziko du erantzuna, eta organo eskudunari bidaliko dio.
- Organo eskudunak lehenbailehen bidaliko dio interesdunari Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak (EEGK) emandako erantzuna, jatorrizko dokumentuaren hizkuntzaren egindako itzulpen ziurtatuarekin batera.
- Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen (EEGK) administrazio-zerbitzuek ere jatorrizko dokumentuaren hizkuntzan erantzun dezakete, eta erantzuna zuzenean bidali interesdunari.

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitea (EEGK) ez da inola ere arduratuko gaztelaniaz besteko hizkuntza batera egindako itzulpenetan gerta daitezkeen akatsez, ezta erantzunaren interpretazioan gerta daitezkeenez ere, eta hori espresuki jasoko da itzulpenen testuan.

1.2. Salbu eta Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak (EEGK) itzulpenak egiteko gaitasuna izanik hala egitea erabakitzen duen kasuetan, 1978ko Espainiako Konstituzioaren arabera estatutua aitortua duten gaztelaniaz besteko hizkuntza batean jasotako idatzizko komunikazioek ez badaramate itzulpen ziurtaturik, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak (EEGK) bidaltzaileari itzuliko dizkio.

Kasu horretan, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak (EEGK) interesdunari jakinaraziko dio ezen, instituzio horri komunikazioak gaztelaniaz besteko hizkuntza batean bidaltzeko eta erantzuna hizkuntza horretan jasotzeko duen eskubidea baliatu nahi badu, Espainiako legeriak horretarako izendatua duen organoari bidali behar dizkiola.

1.3. Komunikazioa egin duen herritarrak epe bat badauka Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak (EEGK) emandako erantzuna bideratzeko, eta 1.1. puntuan xedatutakoaren salbuespen gisa, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak (EEGK) zuzenean bidaliko dio erantzuna herritarrari, gaztelaniaz, eta organo eskudunari ere bai. Erantzunean, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak (EEGK) alderdi horren berri emango dio herritarrari ere.

Erantzun horretan, Europako Batzordeak herritarrari gogoraraziko dio erantzuna bideratzeko epea hura gaztelaniaz jasotzen duen egunetik aurrera hasiko dela zenbatzen. Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak (EEGK) bere erantzunaren kopia bat bidaliko dio organo eskudunari, azken horrek interesdunari itzulpen ziurtatu bat bidal diezaion komunikazioan erabilitako hizkuntzan, eta horren berri emango dio herritarrari ere. Itzulpen horien erantzulea ez da inola ere izango Europako Ekonomia eta Gizarte Komitea (EEGK), eta hori espresuki jasoko da **itzulpenen** testuan.

- 1.4. Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak (EEGK) erantzuteko epe jakin bat badu, jatorrizko dokumentua eta horren gaztelaniazko itzulpen ziurtatua jasotzen duenetik aurrera hasiko da zenbatzen. Epe hori amaituko da Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak (EEGK) bere erantzuna gaztelaniaz bidaltzen dionean Espainiako legeriak izendatutako organo eskudunari, edo Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteak (EEGK) erantzuna zuzenean interesdunari bidaltzen dionean jatorrizko dokumentuaren hizkuntzan.
- 1.5. Administrazio-akordio hau sinatzen duten alderdiek konpromisoa hartzen dute akordio honetan sartzen diren komunikazioen konfidentziasuna uneoro gordetzeko behar diren neurriak har daitezen, bereziki Espainiako Gobernuak izendatutako organo eskudunak egindako itzulpenari dagokionez.

Bigarren klausula

Espainiako Gobernuak bere gain hartuko ditu administrazio-akordio hau aplikatuz eratorritako zuzeneko eta zeharkako kostuak, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteari (EEGK) dagokionez..

Horretarako, Europako Ekonomia eta Gizarte Komiteko (EEGK) zerbitzu eskudunek Espainiako agintariei urtero eskatuko diete egindako gastuak itzul ditzatela, oroharreko prezioan kalkulatuta akordio honetan aurreikusitako prozedurari jarraikiz itzulitako orrialde-kopuruaren arabera. Espainiako Gobernuak dagokion zenbatekoa itzuli beharko du, hilabeteko epean, jakinarazpenaren egunetik zenbatzen hasita.

Hirugarren klausula


Akordio hau aplikatuko da lehenengo klausulan jasotako itzulpenak egiteko Espainiako legeriak izendatutako organo eskudunak Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen Idazkaritza Nagusiari (EEGK) jakinarazten dizkion egunetik aurrera.

Azken xedapena

Alderdiek, ados jarrita, erabaki ahal izango dute administrazio-akordio hau berrikustea. Akordioa bi alderdietako edozeinek sala dezake gutun ziurtatu baten bidez, hiru hilabeteko aurrerapenarekin, ebatzteke dauden gaiak ebatzi arte.

Madriilen egina, 2006ko ekainaren 7an

Europako Ekonomia
y Social eta Gizarte Komitea (EEGK)


edo
Patrick VENTURINI
Lan eta Gizarte Gaietako Ministerioaren idazkari nagusia

Por el Reino de España


Jesús CALDERA SÁNCHEZ-CAPITÁN
idazkari nagusia